



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko maiatzaren 23a

74. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, hizkuntza anitzeko ikuspegi baten esparruan, ama hizkuntzan emandako hezkuntza herritarren artean susta dezan eta herritarrei ezagutzera eman diezaien, Unescoren gomendioei jarraituz, eta Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunari atxiki dakion. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerantzean Gobernuak kudea ditzan haurren eta nerabeen arretarako hiru taldeak. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Kirolaren Legea alda dezan eta kirol profesionalari buruzko araudi berri bat presta dezan, emakumezkoen ligak barne hartuko dituen, emakumeei babes handiagoa emateko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontsumo Departamentuari jarraibideak eman diezazkion, ikerketa egitekoak Nafarroan dauden finantza-entitateek abusuzko klausulak ezartzeari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Eskola Publikorako plan estrategiko bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren testu bategina berrikus dezan, erreforma fiskalak nafar zergadunengan daukan ondorio bidegabeak zuzentzeko. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foruzaingoko sindikatuek, alderdi politikoek eta Nafarroako Gobernuak osatutako negoziazio-mahai bat era dezan, Foruzaingoari buruzko Lege bat adosteko. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Utzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzorde bat eratzea. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epearen luzapena (10. or.).
- Utzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordea. Osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak (11. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen duena.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Foru Lege proposamen honi zuzenketak aurkezteko epea **2017ko ekainaren 8ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: "Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala

emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen duena." Aipatu foru lege proposamena 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, hizkuntza anitzeko ikuspegi baten esparruan, ama hizkuntzan emandako hezkuntza herritarren artean susta dezan eta herritarrei ezagutzera eman diezaien, Unescoren gomendioei jarraituz, eta Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunari atxiki dakion.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko maiatzaren 11n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, hizkuntza anitzeko ikuspegi baten esparruan, ama hizkuntzan emandako hezkuntza herritarren artean susta dezan eta herritarrei ezagutzera eman diezaien, Unescoren gomendioei jarraituz, eta Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunari atxiki dakion."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna ospatzearekin.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hizkuntza anitzeko ikuspegi baten esparruan, herritarren artean susta dezan ama hizkuntzan emandako hezkuntza eta herritarrei ezagutzera eman diezaien, Unescoren gomendioei jarraituz, betiere hizkuntza gutxituen testuinguru bereziari egokitzuz eta kontuan hartuz, Unescoren beraren ikuspegiarekin bat"

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerantzean Gobernuak kudea ditzan haurren eta nerabeen arretarako hiru taldeak.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko maiatzaren 11n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerantzean Gobernuak kudea ditzan haurren eta nerabeen arretarako hiru taldeak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrerantzean Nafarroako Gobernuak kudea ditzan haurrei eta nerabeei laguntza emateko hiru taldeak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuak zuzenean kudea dezan Iruñerrian eta iparraldean ezarri asmo den haurrei eta nerabeei laguntza emateko taldea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter eta kuantifika dezan, ikuspuntu ekonomikotik eta beharizanen eta eskaeraren aldetik, haurrei eta nerabeei laguntza emateko beste hiru taldeak ezartzeko aukera”.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Kirolaren Legea alda dezan eta kirol profesionalari buruzko araudi berri bat presta dezan, emakumezkoen ligak barne hartuko dituen, emakumeei babes handiagoa emateko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko maiatzaren 11n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Kirolaren Legea alda dezan eta kirol profesionalari buruzko araudi berri bat presta dezan, emakumezkoen ligak barne hartuko dituen, emakumeei babes handiagoa emateko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du neurri eraginkorrek har ditzan, Kirolaren Legea egokituz edo beharrezko-

tzat jotzen dituen lege-aldaketak eginez, emakumezko kirolari profesionalari babes handiagoa ematearren “haurdunaldiaren aurkako klausulak” deitutakoen eta beste edozein abusuzko jokabideen aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako Gobernuak premiatzen ditu, Kirol Kontseiluaren edo dagokien federazioen bidez, kontzientziazio kanpainak susta ditzan, jokabide okerrak azaleratzeko eta emakumezko kirolarien eskubideen eta duintasunaren aurkako abusuzko jokabide guztien jazarpena areagotzeko”.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kontsumo Departamentuari jarraibideak eman diezazkion, ikerketa egitekoak Nafarroan dauden finantza-entitateek abusuzko klausulak ezartzeari buruz.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko maiatzaren 11n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kontsumo Departamentuari jarraibideak eman diezazkion, ikerketa egitekoak Nafarroan dauden finantza-entitateek abusuzko klausulak ezartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuari jarraibideak eman diezazkion, honela jokatuko:

– Modu aktiboan aurrera eraman dituzten ikerketak, Nafarroan jarduten duten finantza-entitateek abusuzko klausulak –batez ere, zoru-klausulak– ezartzeari buruzkoak.

– 1/2017 Errege Lege Dekretuaren aplikazioaren edo erabileraren gaineko kontrol bat egin dezan partikularrek arlo hau dela-eta beren finantza-entitateei egiten dizkieten judizioz kanpoko erreklamazioei buruz.

– Ezar dituzten, bidezkoak diren izapide eta azterlan juridikoak egin ondoren, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren arloko foru araudian ezarritako zehapenak, horrelako klausulen erabilerara orokor eta zabala detektatzen duen kasuetan. Halaber, zehapen horiek handitu eta areagotu daitezela, 1/2017 Errege Lege Dekretuan xedatutako judizioz kanpoko konponbideak aplikatzeari dagozkionez finantza-entitateei erresistentziatzeko jarrera edo fede txarra antzematen zaienean."

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Eskola Publikorako plan estrategiko bat taxutu dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko maiatzaren 11n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Eskola Publikorako plan estrategiko bat taxutu dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Eskola Publikorako plan estrategiko bat aurkez dezan bi hilabeteko epean, eskola horren titular den aldetik, eskolaren

aukerak gehitzeko, hura indartzeko eta ikastetxe horien hobekuntza ahalbidetzeko, zeinetan eskolaturik baitaude zailtasun handienak dituzten ikasleak eta askoz neurri handiagoan artatzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-beharrizan guztiak.

Beste alderdi batzuekin batera, aipatu planak egutegi zehatz bat edukiko du, funts publikoekin sostengatutako ikastetxe publikoen sareko egoera ekonomiko txarreko ikasleen egoeraren gainekoa (fluxuak, sareen arteko banaketa, hizkuntz-ereduen arteko banaketa, sartu berriak diren ikasleak eskolatzeko irizpideak...), eskola publikoan egoera ekonomiko txarreko ikasleen pilaketa-tasa murrizteko egutegi eta prozedura bat, eta ikasle horiei arreta emateko erabiltzen diren giza baliabi-

deen eta baliabide materialen gaineko txosten bat, bai eta horien gehikuntza bat ere, halakorik behar denerako.

Lurralde Lankidetzako Plan berriazko bat edukiko du, udalen lankidetzarekin landa eremuko eskolari laguntzekoa. Bertan aztertuko dira behar diren baliabideak, irakasleen berriazko prestakuntza, ikastetxe bakoitzeko zerbitzu osagarriak eta, arreta bereziz, ikasleendako garraio, jantoki edo laguntza materialaren beharrianak.

Era berean, hezkuntza sistemaren ebaluatu eta ikertzeko plan bat edukiko du, arreta berezia eskainiko diona Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak egiten duen diagnostiko-ebaluazioa garatu eta hobetzeari, kanpo ebaluaziorako berezko eredu gisa; halaber, ikastetxeetan emaitzak etengabe hobetzeko prozesuak indartuko ditu; bereziki, zailtasun handienak dituzten ikastetxe publikoetan, eta zerbitzu guztien inplikazioa, koordinazioa eta lankidetzaren berrituko ditu.

Halaber, aipatu planak jaso beharko du atzerriko hizkuntzen irakaskuntzen azpiegitura, antolakuntza eta curriculum definitzeko egutegi bat eta era integral eta progresiboan orokortzeko plan bat, oinarri administratibo eta juridiko egonkorrekin, ebaluazioan oinarrituko den hobekuntza-plan esplizitu batekin; izan ere, ezin da inola ere justifikatu ikasle guztienganaino berdintasunez ez iritea ingelesa edo atzerriko beste hizkuntza bat komunikazio-hizkuntza bihurtuz lortzen den berebiziko hobekuntza.

Nafarroako Foru Komunitateko Eskola Publiko-rako Plan Estrategiko horretan biltzen diren hobekizun guztiak kanpaina instituzional batean kon-tuan hartu ahalko dira, zeinak, eskola publikoaren aitortzea gorabehera, azpimarratu egingen baititu hobekuntza horiek zabalkundearen eta publizitatearen, iritzi publikoaren eta Nafarroako gizartearen ezagutzearen bidez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren testuategina berrikus dezan, erreforma fiskalak nafar zergadunengan dauzkan ondorio bidegabeak zuzentzeko.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren testuategina berrikus dezan, erreforma fiskalak nafar zergadunengan dauzkan ondorio bidegabeak zuzentzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, eztabaidatu eta bozkatzeko, erreforma fiskalak nafar zergadunengan dauzkan eragin bidegabeak zuzentzeko.

2016ko PFEZaren aitorpenerako kanpaina honetan kontrajarririk suertatzen ari dira lau alderdiko gobernuaren ikuspegi asebera eta Foru Komunitateko herritarren errealitatea.

Nafarroako Gobernuak ez ditu entzun nahi izan behin eta berriz egin zaizkion ohartarazpenak eta iradokizunak, alderdi politikoaren, kolektibo sozialen, aditu-taldearen eta erreforma fiskal bidegabe horrek kaltetutakoaren aldetik; izan ere, zerga handiagoa ordaintzera behartu ditu familiak, 20.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituen klase ertaina eta langile-klasea.

Gobernuaren erantzuna izan da zigor fiskal bidegabe hori ukatzea eta uko egitea, halaber, hura zuzentzeari. Horiek horrela, nafar zergadunek gastu berezi eta askotan ustekabeko bati egin behar diote aurre, bereziki seme-alabak dituzten familiak kaltetu dituen zerga igoera horren ondorioz.

Gobernuak familiei eta klase ertaineko beste zergadun batzuei ezartzen dien ezohiko gastu ulertezin horrek etxeko ekonomietan benetako murrizketa bat egitera behartzen du, suspertze ekonomikoa haietara nahiko genukeen indarrarekin oraindik iritsi ez delarik.

Gastu hori guztia beste atal batzuetatik kendu behar dute, eta zenbateko hori batez ere Foru Komunitateko kontsumotik desagertuko da, egoera ekonomikoak bereziki zigortu dituen sektoreen kalterako, merkataritza barne.

Gainera ulertezina da Uxue Barkosen gobernuak Foru Komunitatearen arlo fiskaleko eskumen zabalak erabiltzea nafar herritarrak uzteko Espainiaren osotasuneko zergadunek dituzten baldintzak baino okerragoetan.

Horregatik guztiagatik, oraingo errenta kanpaina bukatuta eta ikusirik nafar zergadunendako izandako ondorioak, Unión del Pueblo Navarroren ustez badira aski arrazoi Nafarroako Parlamentuak honako erabaki proposamen hau onesteko:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren testuategina berrikus dezan, horren azken aldaketak nafar zergadunentzat eta, bereziki, ardurapean seme-alabak edo aurreko ahaideak dituzten familientzat izan dituen ondorio bidegabeak zuzentzeko.

2.- Horretarako, hiru hilabeteko epean, Gobernuak Parlamentuari igorriko dio aipatu lege testua aldatzeko proposamen bat, Legebiltzarrean eztabaidatu eta onesteko.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia



**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foruzaingoko sindikatuek, alderdi politikoek eta Nafarroako Gobernuak osatutako negoziazio-mahai bat era dezan, Foruzaingoari buruzko Lege bat adosteko.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Ana María Beltrán Villalba andreak honako mozio hau aurkeztu zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foruzaingoko sindikatuek, alderdi politikoek eta Nafarroako Gobernuak osatutako negoziazio-mahai bat era dezan, Foruzaingoari buruzko Lege bat adosteko.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2017ko maiatzaren 5eko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzorde bat eratzea.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2017ko maiatzaren 11n erabaki zuen Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzorde bat eratzea.

Erabaki hau argitara dadin agintzen da, Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzea.**

*HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzeko hautagaitzak aurkezteko

epea **2017ko ekainaren 8ko eguerdiko hamabik arte** luzatzea:

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordea.

### OSAERA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2017ko maiatzaren 11n erabaki zuen Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzorde bat eratzea.

Hori dela eta, Erregelamenduko 62. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoari jarraikiz, bidezkoa da onestea batzorde horren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua zuzenduko dituzten arauak.

Hori horrela, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, ERABAKI DA:

1. Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea. Honen ondotik ageri dira arau horiek.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### Ultzamako biometanizazio plantari buruzko ikerketa batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak

**Lehena.** Ikerketa batzordea eta haren jarduketak Legebiltzarreko Erregelamenduko 62. artikuluan eta harekin lotutakoetan ezarritakoari egokitu zaizkio.

**Bigarrena.** Ikerketa batzordearen xedea izanen da alderdi hauek aztertzea: Iraizotzen (Ultzama) abeltzaintzako mindetan oinarritutako elektrizitate-produkzioko planta baterako obra publikoa esleitzeko eta ondoren planta hori ustiatzeko prozedura; horren proiektu teknikoak; emakida Bioenergía Ultzama SARI lagatzea; zinetzietatik merkataritza-sozietate horretan bazkide gisa parte hartu izana; jardueraren garapena eta plantaren itxiera, eta Nafarroako Gobernuako departamentuek emandako laguntzetatik edo diru-laguntzetatik heldu diren funts publikoen erabilera eta xedea.

**Hirugarrena.** Ikerketa batzordea talde parlamentario bakoitzeko bi kidek eta foru parlamentarien elkarte bakoitzeko kide batek osatuko dute, eta erabaki guztiak boto ponderatuaren sistemaren bitartez hartuko ditu, batzordeburuaren hauta-

keta barne. Eledun bakoitzak, bere taldea edo foru parlamentarien elkartearen zenbat foru parlamentarik osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu batzordean.

**Laugarrena.** Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek 2017ko maiatzaren 25eko 19:00ak baino lehen jakinarazi beharko diote Legebiltzarreko lehendakariari nor aukeratu duten batzordeko kide izateko.

**Bosgarrena.** Ikerketa Batzordea 2017ko maiatzaren 30ean eratuko da, 16:30ean. Eratze-bilkura Parlamentuko lehendakaria izanen da buru.

**Seigarrena.** Batzordearen eratze-bilkura batzordeburua hautatuko da. Batzordeburua ez dagoenetan, talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bereko batzordekide den beste foru parlamentaria arituko da haren ordean. Batzordeari laguntzen dion legegaria izanen da batzordeko idazkari.

**Zazpigarrena.** Ikerketa batzordeak 2017ko irailaren 30a baino lehen amaitu beharko ditu bere lanak, eta egun horretan onetsita egon beharko dute iristen dituen ondorioztapenek. Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, epe hori luzatu ahalko du, Batzordeak eskatzen badu.

**Zortzigarrena.** Batzordeak egiten dituen informazio- eta dokumentazio-eskaerei erantzuna eman beharko zaie Batzordeak berak kasu bakoitzean ezartzen duen epean. Informazioa edo dokumentazioa zuzenean batzordeburuari helarazi behar zaio, eta horrek batzordekide diren foru parlamentariari berehala emanen die.

**Bederatzigarrena.** 1. Batzordera agertzeko eskariak zitazio fede-emaile bidez eginen ditu Parlamentuko lehendakariak, agerraldia baino hiru egun lehenago, gutxienez. Zitazio horretan hauxe jaso beharko da:

- a) Batzordeak zein egunetan hartu zuen kasuko pertsonaren agerraldia eskatzeko erabakia.
- b) Agerraldira deitutakoaren izen-abizenak.
- c) Agerraldiaren tokia, eguna eta ordua.
- d) Ohartarazpena, adieraztekoa ezen, agertzen ez bada, Zigor Kodearen 502.1 artikuluan jasotako desobeditze-delitua eginen duela.
- e) Agerraldian hizpide izanen dituen gaiak.

f) Espresuki aipatuko da Konstituzioak aitortzen dituen eskubideak errespetatuko direla; bereziki, pertsonen intimitate eta ohorerako eskubidea, sekretu profesionala eta kontzientzia klausula.

g) Agerraldia hedabideei irekia izanen delako ohartarazpena. Halere, agerraldira deitutakoak batzordeari eskatzen ahalko dio bilkura isilpekoa izan dadila, horretarako arrazoiak azalduz.

2. Agertzeko eskaria funtzionario publiko bati egiten zaionean, hierarkian haren gainean dagoenari igorriko zaio zitazioaren kopia, jakinarazpen-ondorio hutsetarako.

3. Agerraldira deitutakoak berari laguntzeko izendatzen duen pertsonarekin egin ahalko du agerraldia.

4. Agerraldira deitutakoa batzordeari mintzatu aurretik, batzordeburuak hura ohartaraziko du

Zigor Kodearen 502.3 artikulua ezarritakoaz, Parlamentuko ikerketa batzorde baterako deialdia jaso eta lekukotza faltsua ematen duenarentzat.

5. Agerraldira joatera behartuta dagoenari horren ondorioz sortutako gastuak ordaindu eginen zaizkio, behar bezala justifikatu ondoren, Nafarroako Parlamentuko aurrekontuaren kargura.

**Hamargarrena.** Ikerketa batzordearen lanek lehentasuna izanen dute Legebiltzarraren gainontzeko jardueren aldean.

**Hamaikagarrena.** Ikerketa batzordearen irizpean bilduko dira iritsitako ondorioztapenak. Baldin eta boto partikularrik badago, onetsitako irizpe-nari gehitu eta, horrekin batera, Legebiltzarraren Osoko Bilkurari igorriko zaio, eztabaidatu eta bozkatzeko.